



Iratxe Retolaza
Danele Sarriugarte

**Gizontzeko
(andretzeko)
garaia**

ZALDIARRI·6

© 2015 Iratxe Retolaza / Danele Sarriugarte
© Edizio honena: HEA. Gabriel Arestiren etxea

2015eko uztaila

Azala: *Udaberria hilabeterik krudelena* (1999)
Erramun Mendibelanda
Maketazioa: Gráficas RD
Inprimaketa: Gráficas RD

HEA Kultura elkarteak. G. Arestiren etxea
posta@eakopoesiaegunak.eus
www.eakopoesiaegunak.eus
Ea (Bizkaia)

Gizontzeko (andretzeko) garaia.
Gabriel Arestiren
imajinario poetikoa eta
genero-eraikuntzak

Iratxe Retolaza
Danele Sarriugarte

Eskerrik asko Herrijeri Emon Arnasa kultur elkarteari, hitzaldi hau prestatzeko eta argitaratzeko gonbidapena egiteagatik. Eskerrik asko Donostiako Irakurle Eskola Feministako kideei, bidelagun izan zarete gogoeta hauetan.

Gizontzeko (andretzeko) garaiaz dihardu Gabriel Arestik *Harrizko Herri Hau* bildumako «Gizonari geldi-arazitzeko bertsoak» poeman (Aresti, 1986c: 53). Lelo horretatik tira eginez, Gabriel Arestiren imajinario poetikoak nolako gizontzeak eta nolako andretzeak proposatzen dituen aztertuko dugu saio honetan. Gabriel Arestiren aintzatespena etengabea da gaur egun, eta omenezko ekimenak ere ugaritu dira 2014. urtean, *Harri eta Herri* (1964) liburuaren urteurrena gogoan¹. Imajinario kolektibo garaikidean, hortaz, oso presente dago poeta bilbotarra, eta batik bat balore hauekin lotu izan da Arestiren ekarpena: «euskalduntasuna», «unibertsaltasuna (gizatasunaren balioak)» eta «justiziaganako maitasuna» (Gabriel Aresti kultura elkarte, 2013: 9-10).

Gabriel Arestik, eta batik bat hark sorturiko lelo jakin batzuek, gaur egungo kulturgintzan eta politikagintzan oihartzun handia du(t)ela kontuan izanik, beharrezkoa iruditu zaigu Arestiren poetika aztertzea genero-eraikuntzaren ikuspegitik; edo, areago, Arestiren inguruko diskurtsoak aztertzea

¹ Horren erakusgarri dira, besteak beste, *Agiriak. Euskal Poetak eta Artistak Gabriel Arestiren omenez* (Aresti, 1978) liburua, *Eako poesia egunak* kultur ekimena, Gabriel Aresti kultur elkarte –eta beraiek hauspotutako *Gabrielen Lekua* ikuskizuna–, *Harri eta Herriri* buruzko zikloa Berrirakurketa saioetan, Deustuko unibertsitateak Arestiren ondareaz antolatutako zikloa, eta beste hainbat ekimen.

ikuspegi jakin horretatik. Izan ere, Arestiren poetika hainbat jardun kultural eta politikotan erabili da, behin eta berriro, eta bere horretan hartu izan dira Arestiren poemak zein leloak, genero-ikuspegian inolako gaurkotzerik egin gabe. Hurbilketa honekin, beraz, agerian utzi nahi dugu imajinario kolektiboan erroturiko hainbat irudi, poema edo lelo arestiar birpentsatzeko beharra, edo berregokitzeko beharra.

Horretarako, bi urrats egingo ditugu: lehenik, Gabriel Aresti poetaren irudia aztertuko dugu, aitatasun-diskurtsoak bidelagun ditugula; bigarrenik, imajinario kolektiboan erroturiko poema edo lelo arestiar zenbaiten inguruko gogoeta abiatuko dugu, genero-diskurtsoen arrastoetatik tira eginez.

1. GABRIEL ARESTI, AITATASUN POETIKOA

Euskal poeta gehienek egiten diote erreferentzia Gabriel Arestiri, beren proposamen poetikoa gorabehera. Ia poeta guztiek autoritate eztabaidaezintzat dute Aresti, eta, zentzu horretan, euskal kultur bizitzan toki handia hartu du bilbotarrak. Esan dezakegu, beraz, Gabriel Aresti aita poetiko bat dela, oso gutxitan zalantzan jarria, seguru asko figura mitikoa delako, erresistentziaren ikur ere bilakatu delako (frankismoaren aurkako eta euskararen aldeko borrokekin estuki lotutako poeta baita). Zentzu horretan, kritikari eta poeta bakoitzak erresistentzia-irudia borroka zehatz batekin lotu izan du: justizia soziala (Aldekoa), herritartasuna (Izagirre), askapen borroka oro (Etxarte)... Kokapen ideologiko ezberdinetatik jardunda ere, Aresti aitzindaritzat dute guztiek, profetatzat, patriarkatzat.

Literatur kritikariek ere sustatu dute Arestiren aita-itxura hori, Iñaki Aldekoaren hitz hauetan argi ikus daitekeen moduan: «Aresti pertsona eskuzabala izan zen belaunaldi gazteekin. Nolabaiteko aita bat izan zen Lur argitaletxearen bueltan ibilitako idazle gazteentzat» (Aldekoa, 2004: 171).

Era berean, aitaren irudia behin eta berriro agertzen da Arestiren poesian, Arestik aitaren rola jokatzen du bere diskurtso poetikoan; bere

poesian irudi patriarkalak etengabe sortzeaz gain, aitarena posizio diskurtsibo oso ohikoa da Arestiren poesian.

Joxe Azurmendik ere Arestiren aitatasunaz jardun du: «Aitaren etxea, gero, Aresti bera da (bere aitatasuna nola ulertzen zuen ikusi behar da, leinuaren korrontean) eta bere familia, askazia» (Azurmendi, 1985: 22). Arestik bere burua aita gisa kokatzen du ez soilik «Nire aitaren etxea» poema ezin ezagunagoan, ezpada baita beste hainbat kasutan ere, hala nola, «Nere mendean» poeman: «Inor ez da profeta / bere mendean. / Berriz etorri naiz / pentsamentura, / eta andre-alabik ez banu, / pozik / hilen ninzake, / nire esanak konsidera ditzan / euskal harriak» (Aresti, 1986b: 201).

Era berean, Aresti martiritzat ikusi izan da, kausa sozialen eta euskararen alde sakrifikatu zen heroi modura, eta, ordainean euskal jendeek bizkarra eman zioten:

Arestiri sufriarazi omen geniona ere, utzi egingo dut, oraingoz behintzat: Koldo Mitxelenagandik hasi eta [Joseba] Sarrionaindiaganaino, sufritzea tokatu zaion jendea asko dabil gerraosteko euskararen historian, eta ez zait interesatzen zein ateratzen den martirioetan txapeldun. Interesatzen zait, hori bai, martiri hauetatik inor ez dadila ahaztuta geratu; eta ez dadila ahaztu, euskararen borroka kostatzen ari zaigun martirio bakoitza eta denak banan-banan (Azurmendi, 1985: 6).

Pixka bat aurrerago, zera dio Azurmendik:

Aldarrikatu samarturik dago, Arestik asko sufritu zuela ere, bakarrik eta abandonaturik sentitu zela. (...) Kausak ez zaizkit orain inporta. Gabrielelek asko sufritu zuen, [Jon] Mirandek bezala, eta Jon Etxaidek. Eta Andimak [[binagabeitia] bezala, [Jokin] Zaitegik, Salvatore Mitxelenak, Txillardegik... Ez da edozein jende-modu sartzen buru-belarri euskararen kalbarioko lanetan. Gero, ordea, eta beharbada jende idealista eta nahitaez sentibera delakoxe, azkenean kalbario horrek denak, ia den-denak harrapatzen ditu (Azurmendi, 1985: 22).

Izen asko aipatzen ditu Azurmendik, euskararen alde borrokatu eta sufritu zirenak. Gizonak denak. Desoreka hori zuritzeko sarri baliatzen den arrazoia da garai hartan andrearik ez zegoela; gerora, andreek egindako bestelako lan batzuei eman zaie aitortza, lehen ikastoletako andereñoiei, bereziki. Esanguratsuak dira, ostera, Arantxa Urretabizkaiari egindako elkarrizketa batean idazleak esanak. Euskararen batasunaren prozesua nola bizi izan zuen galdetzen diotela, zera dio:

Izan zen izugarria. Hori ez da ondo kontatu, eta halakoren batean kontatuko dut. Euskararen batasuna zela-eta, bitan bota ninduten lanetik. Bitan! Lehenengo aldiz lanetik bota nindutenean,

Egiako ikastolan hastekoa nintzen. Alfonso de Otazuren liburua [*Euskal Berdintasuna*, 1973] euskarara egokitu nuelako bota nindutela esan zidaten. Eta hantxe zuten liburua, mahai gainean, esan zidatenean. Lanean hasi baino lehen bota ninduten. Ikasturte hartan Ibonek [Sarasola] eman zidan lana, hiztegirako fitxak egiteko. Hurrengo urtean Patri Urkizuk Lezoko ikastolan lana inguratu zidan. Lanean hasi eta astebetara, gurasoak etorri zitzaizkidan; tartean, ama bat, nire gelako ume baten ama. Bailarako bilera egin zutela esan zidaten, eta Egiako ikastolatik bota nindutela jakin zutela, eta ezin nuela nik han lan egin, lotsagarri zitzaieela. Orduan, eskola partikularrak eman behar izan nituen. Euskararen batasuna zer izan zen. Nire kasua kontatzen ari naiz, baina pila dira. Arestiri zer egin zioten ez dago kontatu beharrik... (Elustondo, 2014).

Hasteko, argi ikusten da izan bazirela euskararen alde publikoki lan egin zuten andreak, besterik gabe, ahaztuak dira edo ez dira martirien zerrendatan sartzen. Bigarrenik, bete-betean egiten dugu topo, berriro ere, Arestiren presentzia eta garrantziarekin.

Aitaren irudia eta deslari dabilen herria berriro ere azaltzen zaizkigu Koldo Izagirrek *Harri eta Herriren* 2000ko berrargiltapenari egindako hitzaurrean:

Sinatuko zukeen manifestu hau? Zer esanen ote zukeen egun bizi dugun egoeraz? Zein izanen ote zen bere hautu politikoa? Adiskideen lagun?

Behialakoen etsai? Nolako moldea erabiliko zukeen bere poesian? Jarraituko zukeen poesia egiten? Geure buruari edo lagun hurkoari ahapetik egiten dizkiogun galdera xaloak dira, maila mitikoan ezarria daukagun autoreari geuk ez daukagun kuraia aitortzen diogulako «irakurri nahi genituzkeenak» idazteko, intimitate kolektibo baten interprete denez. Halako galderak eginik, poetaren zuhurtzia mingarria edo erokeria sanoa aldarrikatzeaz bat, haren heriotza goiztuak utzi hustasuna salatzen dugu. Poeta zibil bikain baten premia daukagu, orain, hemen, bere isolamendu tragikoan, bere desmasia elekarian ezintasun nazional hau modu eraginkorrez salatzeko. Idatziko zukeen hartaz egiten dugu amets, eta geure inozoan ez gara ohartzen poetak idatzirik utzi zuela guk behar dugun hitza (Izagirre, 2000: 5).

Pasarte esanguratsua, inondik ere. Azpimarragarria da Izagirrek deskribatzen duen ume-zurtz-sentimendua, idazleak berak kontzeptu zehatz hori baliatzen ez badu ere, «haren heriotza goiztuak utzi hustasuna» adierazpena aise lot daiteke aitarik gabe geratu den herri baten minarekin.

Hortaz, Arestiren autore-figura batez ere bi zimenduren gainean eraiki da: patriarka-profeta eta martiri-heroia. Eta autore-irudi horiek itzala egin diote Arestiren obra osoari, ekarpen poetikoak irudi horien guztien mesedetan irakurri izan direlako.

2. GABRIEL ARESTIREN LELO POETIKOAK ETA IMAJINARIO KOLEKTIBOA

Imajinario poetiko hori 60ko-70eko hamarkadako giroan gorpuztu bazen ere, Gabriel Arestiren poema edo lelo poetiko zenbaitek imajinario kolektibora egin dute jauzi, eta belaunaldiz belaunaldi iraun du transmisioak (diskurtso kultural zein politikoen bitartez –kantuak, lelo politikoak, eta abar–). Transmisio-diskurtso horietan garaturiko pentsamendua eta mundu-ikuskeraz aztertzea garrantzitsua da, diskurtso horietan ere genero-irudikapenak eraikitzen direlako, eta izan ere, transmisio-ekintza horiek iraunarazi dutelako Arestiren poetika bizirik. Gainera, Arestiren poemak baino gehiago hedatu dira bere poetikaren inguruko diskurtsoak, edo lelo poetiko zenbait. Hiru lelo hartuko ditugu jarraian, Arestiren imajinario poetikoaz jarduteko behin eta berriro aipatu izan direnak, eta geure ustez, genero-ikuspegitik auzitan jarri beharrekoak gaur egun, edo birpentsatu beharrekoak bederen.

«Poesia mailu bat da»: subjektu obreroa eta genero-eraikuntzak

Ezaguna denez, Arestiren pentsamendua Bilbo aldean errotu zen, garai hartako industria-gunearen bihotzean. Ezinbizkarra eman langileen bizibaldintzei, eta horregatik, langile klasearen komunitatea sendotzeko zubigile aritu zen. Ahotsa eman zion langile klaseari, subjektu obreroa gorpuztuz euskal kulturari. Euskal poesiagintzan, hortaz, «poesia mailu

bat da» leloa bihurtu da subjektu obrero horren ikur², baina, era berean, lelo horrek irudikatzen du poesia sozial eta politikoaren aldarria, poesia gizartea eraldatzeko tresnatzat baitu. Iñaki Aldekoaren iritziz (2004: 168), esaterako, *Harri eta Herri* bilduma «sentsibiltate sozial eta solidario berri» baten emaria da, eta «poesia urbano»aren (Aldekoa, 2004: 169) aitzindari, hirigunea eta borroka sozial-solidarioa lotuz. Har dezagun Gabriel Arestiren poema hau, borroka obrero horren ikurtzat hartu izan dena:

ZORROTZAKO PORTUAN ALDARRIKA

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.
Bien bitartean
Anton eta Gilen zeuden
zerrarekin
tronko hura erdibitzen.
Sokarekin...
Eztago kablerik...
Bestela...
Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.
Hemen euskeraz
ta han erderaz.
Biraio egiten zuten.
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,

² *Mailua* azken batean garai hartako industria-guneko langilearen jarduna irudikatzeko sinboloa dugu, eta era berean, pentsamendu komunistaren oihartzuna dugu.

berdin tratatzen baitu
erdalduna
eta
euskalduna.
Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen errekar
erori nintzela). Eta esan nuen:
Beti paratuko naiz
gizonaren alde.
Gilen.
Anton.

Oro har, lanaren ikuspegi arestiarra biltzen du poemak. Arestiren poetikan, langilea industria-guneko jardunean dabilen pertsona dugu batez ere. Jakina, lanaren inguruko ikuskera horrek mundu-ikuskera bat garatzen du, ez bakarrik injustizia soziala eta esplotazioa industria-gunean kokatzen duelako (eta ez nekazal guneetan, esaterako), baizik eta genero-ikuskera bat garatzen duelako. Izan ere, Arestiren poema horretan *langile=soldataduna* logika garatzen da³,

³ Silvia Federiciren *La revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas* (2013) saiakeran begirada feminista-antikapitalista batetik heldu zaio etxeko lanen esparruari. Federicik ohartarazi bezala, sistema kapitalistak *soldatadun vs. soldata gabeko* logika eraiki du; eta enpleguaren logika horretatik kanpo geratzen dira, beraz, soldata gabeko hainbat lan, kapitalismoak ikusezin egin dituenak. Diru trukerik ez dagoenez, baloratu ere egiten ez direnak. Lan sozial asko, gizarte-ekimen asko. Horien artean, etxeko lanak.

eta are gehiago, baita *langile=gizona* logika ere. Gutxi dira bere poetikan ageri diren emakume langileak, baina, kasu batzuetan, emakume langileez ere badihardu, hitzaurre honetan egin bezala:

ATARI-GISA: Liburu hau (eta orain arteko neure gainerako neke guztiak) euskaldun dirudunek izerdia eta bizi-modua zurruputzen dieten langileei eskaintzen diet; bereziki «ikastola» izeneko euskal eskoletan lan-kontraturik gabe eta lan-segurantzarik gabe gizonaren eskubideak euskera noble batez euskaldun haurrei irakasteagatik bere jornal merkeak arriskuan jartzen dituzten maistrei (Aresti, 1986c: 5).

Maistrak edo irakasleak aipatzen ditu hemen, eta baita beste hainbat lekutan ere; hortaz, hezkuntzaren esparruan irudikatzen ditu emakume langileak, eta *langile=soldatadun* logikari eutsi.

Garaiko giroaren ikurtzat har daitezke irudikatze horiek, eta halakoa zen garaiko pentsamendurik hedatuena, orokortuena. Baina, garai hartan jada hedatzen ari ziren bestelako diskurtsoak, lanaren ikuskera horretan pitzadura txikiak sortu zituztenak. Hiru adibide besterik ez ditugu ekarriko hona, garai hartako giroan bestelako diskurtsoak ere hedatzen ari zirela ikusteko:

BAT. 1964. urtean, *Harri eta Herri* argitaratu zen urtean, *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos* delakoak etxeko lanen inguruan honela zioen⁴:

En cuanto a la posición de la mujer en la sociedad vasca, consideramos que debe gozar de idénticos derechos y posibilidades que el hombre en todos los sectores de la vida política, social, económica y cultural. No obstante, conscientes de la especial función que le incumbe en el hogar como esposa y madre, deberá la sociedad prestar la debida atención y facilitar su cumplimiento. Una de las medidas a emprender sería la concesión de un salario a la mujer con hijos en tanto que legítima compensación por su trabajo y educación de los futuros ciudadanos vascos y su consiguiente aportación a la formación de la sociedad (Documentos Y III: 286).

Alde batetik, emakumeen eskubideak aldarrikatzen badira ere, emaztearen eta amaren funtzioa goratzen da, emakumearen ekarpena etxeko esparruan balioetsiz; beste alde batetik, etxeko lana balioesteko premiaz jarduten du, balioeste hori soldatapeko izateari lotuz.

BI. Gabriel Aresti komunista zen, eta PCEko lagunik ere bazuen. Hain zuzen ere, PCEko hainbat militantek, beste hainbat kiderekin batera, *Asociación de Mujeres Democráticas* (ADM) izeneko taldea sortu zuten, 1962. urte inguruan, Asturiasen (Epelde, Aranguren et alii, 2015: 63-64).

⁴ Onintza Odriozolari eskertu nahi diogu 60ko hamarkadako halako ekarpenen berri ematea.

Lanarekiko morrontza salatzen du poemak, eta poemaren itxurari erreparatuz, lantegiaren itxura har dezake hitzaren arkitekturak, edo orokorrago eginez, botere-egituren itxura. Zentzu horretan, poema honetan lana ez da soilik irudikatzen industria-guneari loturik, ez behintzat esplizituki. Baina, berriro ere gizon langilea irudikatzen da. Nolanahi ere, JosAnton Artzek «Lana» poemaren ondotik, poema hau eskaintzen du, Mikel Laboaren ahotan ezagun egin dena:

Nere ama hil zait
Lanak itota.
Lanaren amoreagatik
Hil zait
Zertarako dan bizitza
Jakitera iritxi gabe.
Izeba ere hil da.
Era berdinean hil da izeba.

Gizonak lanari kateaturik bizi badira ere, emakumeak lanak itota bizi direla adierazten du poemak. Emakume langilearen ikuspegia zabaldu egiten du, etxeko andreen edo zaintza-lanen zama aitortuz, eta *langilea=soldataduna* logika hautsiz, eta lan-zamari erreparaturik, emakumeen zapalkuntza areago doala salatuz.

«Nire aitaren etxea»: herritartasunak eta genero-eraikuntzak

Bada Arestiren beste poema bat, ikur bilakatu zaiguna, kantuen bitartez hedatua, eta batik bat diskurtso kulturaletan eta politikoetan oso maiztua. «Nire aitaren etxea» poema, zenbaitzuek nazio zapalduaren aldeko borrokarekin lotu izan dute; esaterako, Koldo Izagirrek hauxe idatzi zuen *Harri eta Herriren* berrargitalpenerako:

Gure naziotasuna aldarrikatzen da poema horretan, eta Patxi Oroz itzultzaileak seiehun hizkuntzatarara itzultzea bideratu zuen. Munduko bazterretan, poema hori bera erabiliko du beharbada nazio zapalduen batek, euskaldunon berri ukan gabe. Himno bat da, erresistentzia aldarrikatzen du, hilen gaituzte baina zutik iraunen du aitaren etxeak (Izagirre, 2000: 5).

Norabide horretan, ikur bihurtu da poema, eta herritartasunaren diskurtsoak garatzeko erabili izan da sarri, eta «nire aitaren etxea» herriaren edo nazioaren sinbolotzat hartu izan da.

Herri-eraikuntza orok genero-diskurtsoen eta genero-rolen eraikuntza dakar. Imajinario kolektibo orok genero-rol zenbait hedatzen ditu. Montserrat Duch-ek (2012) argitu bezala, herri-imaginarioak sortzerakoan genero-rolak honela mugatu izan dira: emakumeak (sinbolo fosilizatuak) vs. gizonak (protagonista aktiboak) (Duch, 2012: 35):

EMAKUMEAK	GIZONAK
Sinbolo fosilizatuak	Sinbolo-egileak
Protagonista pasiboak	Protagonista aktiboak
Zaintzaileak	Ekintzaileak
Ugaltzaileak	Sortzaileak
Natura	Kultura
Familia	Autoritatea (aita-emeak)

Herriari genero-marka bat edo beste egokitzean, beraz, genero-ikuspegia ere eraikitzen ari gara. Herri-irajinarioro gehientsuenetan, emakumeei funtzio sinbolikoa egotzi izan zaie, herria (komunitatea) erditzeko edo ugaltzeko zeregina bere eginez, eta amatasunari gorazarre eginez, eta *emakume=ama* aldarria gorpuztuz.

Amatasunaren funtzio hori hiru norabidetan garatu ohi da:

- *Amasinbolikoa, herriaren ugaltze sinbolikoa.* Herria=*lurra=familia* kontzeptuak pareko eginez, ama familiaren zaindaria dugu, baina baita lurraren, herriaren zaindaria ere⁵.
- *Ama biologikoa, herriaren ugaltze biologikoa.* Arrazan oinarrituriko nazioaren ikuskera dugu ama biologikoaren oinarri

⁵ «La familia es presenta, així, com a metàfora de la nació i és problemàtica i necessària. La mare, que ja constituïa una de les alegories de la nació, es convertirà en la guardiana de la tradició nacional» (Duch, 2012: 40-41).

nagusi (Duch, 2012: 41). Ikuskera honek arrazaren iraupena emakumeen arduratzat jotzen du. XX. mende hasieran, esaterako, abertzaletasun katolikoak euskaldunekin ezkontzeko deia egin zien emakumeei (eta ahal izanez gero, kanpotarrekin ez ezkontzeko aholkua hedatu), seme-alaba euskaldunak izanez, arraza garbiaren biziraupena ziurtatzeko, odol garbiaren ideari lotuz.

- *Ama kulturala, berriaren ugaltze kulturala.* Kulturaren oinarrituriko nazioaren ikuspegi hau hiru zutabe nagusitan egituratu ohi da: ohiturak, hizkuntza eta sinesmenak (Duch, 2012: 42). Alegia, nazioaren ikuspegi kultural hori gailendu ahala, emakumeek ere heziketaren eta kulturaren esparruan urratsak egin zituzten, eta emakumeen parte-hartzea handitu zen, besteak beste, haiengan jartzen zelako hezkuntzaren eta hizkuntzaren transmisioaren ardura.

Euskal sorkuntzari erreparatu besterik ez dago, «Ama Euskal Herria» eta «Aitaren Etxea» ikuskeren arteko aldeez ohartzeko. Xalbadorren «Ama Euskal Herria» bertsoa eta «Nire aitaren etxea» poema konparatuz gero, aise ohartuko gara goiko taulako genero-irudikatze horiek eraikitzen direla. Azter dezagun, bada, bertso eta poema sonatuek zer genero-rol irudikatzen dituzten:

AMA EUSKAL HERRIA

Delikatua baitut egungo sujeta, / hasi aintzin
egin dut zonbait gogoeta, / gure arteko asko ele
entzun eta, / euskaldun agertzea ez baita josteta.
// Badakit askoz ere nukela hobea / nehoi ez
agertu ene dolarea; / odolaren mintzoa eduki
gordea / nahiko nuke, baina ezin dut ordea. //
Ama Euskal Herriaz naiz nahigabetua, / uzterat
doalakotz betikotz mundua, / bere seme-alabez
abandonatua; / nork barka dezaguke gure bekatua?
// Lehen sartu zitzauzun ezpata zorrotza / zure etxe
nagusi jartzean arrotza / halere ez zitzaizun gelditu
bihotza / etxekeen eskutik duzu heriotza. // Zure
lekua hartu zuen andereak / gurekin behar ditu
pairatu bereak / amaizunarendako ez daizke
hobeak / ama ukatu duten haur dohakabeak.
// Ama Euskal Herriaz naiz (...) // Baditaike
seme hok noizbait oroitzea / Ama, zu ganik izan
dugula sortzea / guhaurek bilaturik zure ehortzea
/ jasan beharra dugu gaztigu dorpea. // Hilobi
hontan noizbait norbait balabila / zure izaitearen
herrestoen bila / lurpetik entzunen du deiadar
bipila: / Hemen dago ama bat bere hurrek hila!
// Ama Euskal-Herriaz...

Bertso honetan ama sinbolikoa dugu Euskal Herria, *berria=lurra=familia* ikuskerari lotzen baitzaio: bertsoak adierazten du herritarrek (seme-alabek) herria (ama) zaintzeko eta biziartzeko ardura dutela, herriaren (amaren) babesgabetasuna eta ahultasuna iradokiz. «Ama Euskal Herria»k, beraz,

taulan aipaturiko ezaugarri guztiak biltzen ditu: emakumea sinbolo fosilizatua da (irudikatze huts bat, ez haragizko gorputz), familiaren imajinarioari lotua («zure etxe nagusi jartzean arrotza»), protagonista pasiboa da (hiltzera doa, abandonaturik izan delako) eta ugaltzailea («zu ganik izan dugula sortzea»).

Gabriel Arestiren poemak *berria=aitaren etxea* sinboloa sortzean, bestelako genero-rolak eraikitzen ditu:

NIRE AITAREN ETXEA

Nire aitaren etxea / defendituko dut./ Osoen kontra, / sikatearen kontra, / lukurreriaren kontra, / justiziaren kontra, / defenditu / egingen dut /nire aitaren etxea.

Galduko ditut / aziendak, / soloak, / pinudiak; / galduko ditut / korrituak, / errentak, / interesak, / baina nire aitaren etxea defendituko dut.

Armak kenduko dizkirate, / eta eskuarekin defendituko dut / nire aitaren etxea; / eskuak ebakiko dizkirate, / eta besoarekin defendituko dut / nire aitaren etxea; / besorik gabe, / sorbaldarik gabe, / bularrrik gabe / utziko naute, / eta arimarekin defendituko dut / nire aitaren etxea.

Ni hilen naiz, / nire arima galduko da, / nire askazia galduko da, / baina nire aitaren etxeak / iraunen du / zutik.

«Aitaren etxea» herriaren sinbolotzat irakurriz gero, herria eraikuntza da (etxea), aitaren jabetzari lotua, eta ekintzaren bitartez semeak defendatuko duen gunea. Beraz, «aitaren etxea» sinboloa ekintzarako deia da, herrigintzan protagonista aktibo izateko oihu. Aldi berean, poemak autoritatea eta genealogia aita-seme katean du oinarritzen. Aipagarria ere bada «Ama Euskal Herria»n seme-alabak agertzea, familiaren gorpuztea, eta «Nire aitaren etxea» poeman, aldiz, aita-semearen arteko harremana izatea ardatz. Bide horretatik, kulturgintzan eta politikagintzan askotan bereizketa hau garatu da: *aitaren etxea vs amaren sua*. Bereizketa horren arabera, «aitaren etxea» sinboloak herri-eraikuntza edo kultur eraikuntza irudikatzen du (kultura, ekintza), eta «amaren sua» sinboloak, aldiz, identitatea irudikatzen du (natura, izaera). Jon Sarasuak, adibidez, honela definitu zituen bi sinbolo horiek:

Hala ere, hizkuntz komunitatea esaten dudanean, hemen dago, nik uste, klabe inportante bat, eta hemen orain dela urte batzuk aipatu nuen horrelako zera bat, metafora bat, eta metafora hori zen amaren sua, eta amaren suaren metafora alboan jartzen nion aitaren etxearen metaforari. «Aitaren etxea defendituko dut», Gabriel Arestiren poema. Zer izango litzateke aitaren etxea? Aitaren etxea izango litzateke egitura politikoa edo plano territoriala, plano instituzional-administratiboa, proiektu politikoa.

Eta nik amaren sua deituko nioke, berriz, gure jarraikortasun edo nortasun kulturalari, hau da, euskararen komunitatearen jarraikortasun horri. Hau da, euskaldunok euskaldun moduan, euskararen komunitate moduan (Sarasua, 2004).

Eta Mario Zubiagak (2009) ere sinbolo horiei egin zien erreferentzia herri-eraikuntzaz jardutean:

LOGIKAK JARDUERAK	LELOAK	EREDUAK
BOTERE POLITIKA	"Gurea egin, haiek egin ez dezaten", betoa/alternatiba, liskarra/protesta, gizarteak Estatuaren menpeko, gizarte zibilaren autonomiarik ez, erradikalismoa. Botere alternatiba...	Kontra-boterea: <i>(Alter)Politics community.</i> EUSKAL HERRIA <i>Aitaren etxea</i>
IDENTITATE POLITIKA	"Guk geure izaerari eutsi, haiek egin dezatela nahi dutena", gizarte zibilaren autonomiara itzuli, liskar mugatua, gizarte zibilaren aldaketarako leukotasun garbia erakutsi. Identitatearen aldarrika	Komunitate borobila: <i>Policy community</i> EUSKAL NAZIOA (Ethnos) <i>Amaren sua</i>
ERAGIN POLITIKA	"Guk eragin haiek aldatu daitezen/dezaten", gizarte zibilaren autonomia eta eragina gizarte politikoa. Erradikalismo auto-mugatua, liskar irekierik ez. Euskal kultura etxex etxe eraman, euskal lobbya.	Parte hartzea: <i>issue/policy network</i> EUSKAL GIZARTEA <i>Arbasoen krisailua</i>

Bi kasu horietan, beraz, «aitaren etxea»k ekintza, eraikuntza, boterea eta politika (esparru publikoa) irudikatzen ditu; eta «amaren sua»k, aldiz, identitatea eta nortasuna (esparru pribatua) irudikatzen ditu. Ama sinbolikoaren irudia eraikiz berriro ere, herriaren ugaltze sinbolikoaren arduraduna; aita-eme genealogiak, aldiz, jabetza eta ahalduntzea irudikatzen du. Aitaren

esku dago, hortaz, etxearen eraikuntza eta egituratzearen ardura; eta amari, aldiz, familiaren (komunitatearen) nortasunaren zaintza.

Ama sinbolikoa barra-barra ageri da Arestiren poetikan. Baina, ama biologikoaren imajinarioa hausten du Arestik, ez baitu arrazan oinarrituriko genealogiaren alde egiten. Azurmendik adierazi bezala (1985), Meli emaztea hizpide izatean, gehienetan arraza auziak jorratzera dator poeta. *Euskal Harria* (1967) bildumako «Meliri dedikatua» poeman hori adierazten du, besteak beste:

Zuri / Espainiako andrea / zimaurretan
aurkitutako lili apala / meli / zuri / eskaintzen
dizkizut / nire hiru grinak / poesia honetan
/ eta nere pertsonan / dauden / hiru grinak
/ meli / ez bakarrik / nire bizitza / (izerdia)
(haserrea) (iraindua izatea) / nire eguna eta
gauak / zuri / meli / Espainiako andrea / nire
aitaren etxearen habea / eskaintzen dizut /
nire poesia / eta / nire persona.

Meli emaztea musaren irudira hurbiltzen da, eta naturako metafora baten bitartez irudikatzen du («lili apala»). Esanguratsua da Meliren espainiartasun hori aipatzea eta goraiapatzea, eta bere etxearen habea eskaintzea.

Kantugintzan ere ama biologikoaren gorazarre hori auzitan jarri zuen Arestik. Adela Ibabe aramaioarra 1973. urtean hil zen, abortu klandestino baten ondorioz. Arestik Adela

Ibaberren omenezko «Adela» kantuaren letra egin zuen Oskorri taldearentzat, Natxo de Felipek hala eskaturik⁶:

Adela, / gure / arabar lorea / giputz arroka,
/ hi, / Bizkaiko burdina. / Orain, / batere
zaratarik gabe / joan haitzaigu / eskoletan ere,
/ euskal eskoletan ere, / klaseen arteko burruka
/ gogorkien / lehertzen zenean, / zeinean /
gizonak / gizonen kontra, / eta euskaldunek
/ euskaldunen kontra / dihardukaten. / Azken
agurra / erran / deraunagunean, / gogorrenari
ere / pausatu ziaion / elur maluta bat /
begiaren ertzean / eta / gure amorrugatik /
gure gorrotoagatik / egin dinagu / zin finko
bat: / azken kolpea eman arte / iraungo dugula
/ gure burruka honetan / hire memorian /
hire memorian / hire memorian! / Hain simple
simpleki / joan hatzaigu hi, / Adela geurea, /
Adela herria, / Adela berria, / gure / Adela
gorria. / Hil haiz / lanik eta soldatarik gabe /
esplotadoreek / zerua goian eta lurra behean
utzia; / hil haiz / esplotadoreek / azpian lur
hotza gainean harria / jarria, / baina hire
erraiek / esperantza hobeko fruituak / sortuko
zitate, / hire bularretako / esne biziaz /
helduko / direnak.

Kantu hau ez zen argitaratu, baina, kantuaren sinbologiak Arestiren poetikaren hainbat ezaugarri

⁶ Xabier Mendigurenen bitartez izan genuen «Adela» kantuaren historiaren berri.

biltzen ditu: langile klasearen aldarrikapena, besteak beste. Izan ere, Adelaren inguruko kantuak batik bat klase-zapalkuntza salatzen du (Adela maistra zen Arrasateko ikastolan, eta kaleratu egin zuten), eta ez du zuzenean heriotzaren arrazoirik aipatzen (ez eta zeharka ere)⁷. Genero-irudikatzei dagokienez, poema arestiarretan garaturiko bide bat ere sumatzen da: emakume historiko zenbaiti poemak eskaini zizkien Gabriel Arestik, eta nolabait, eskaintza eta keinu horren bitartez, emakume horien jarduna eta historia gogora ekartzea du helburu. Zentzu horretan, emakumeen aitortza ere eginez. Baina, poemaren sinbologiak emakumetasunaren inguruko diskurtso eta irudi batzuk hanpatzen ditu, kantuan ere ikusi bezala: natura («arabar lorea»), sinbolo bihurtuak («Adela geurea / Adela herria / Adela berria ... Adela gorria»), ugaltzailea («baina hire erraiek / esperantza hobeko fruituak / sortuko zitinate, / hire bularretako / esne biziak / helduko / direnak»). Azken adierazpen horiek deigarriak dira, kontuan harturik abortu klandestino baten ondorioz hil zela Adela, eta hala ere, ugalkor izate sinboliko hori hanpatzen du kantuak.

Ama biologikoa auzitan jarri badu ere, ama kulturalaren itzala luzea da Arestiren poetikan. Esan dugunez, maistrak aipatu izan ditu emakume langileez jardutean, nolabait heziketaren eta

⁷ Jakina, garaiko giroak zerikusirik izango zuen horretan.

kultur transmisioaren ardura emakumeen esku utziz. Ama kulturalaren irudiak etxeko andrearen funtzioa espazio publikora hedatu ohi du: irakasle, zaintzaile, hezitzaile... irudiak goraipatu ohi ditu. Zaintza-lan horiei loturik irudikatu ohi dira emakumeak Arestiren poemetan. Esaterako, *Harri eta Herriko* «Nire izena» poeman:

Hiltzen naizenean egonen da / nire lauzaren
gainean eskribu hau: / Hemen datza Gabriel
Aresti Segurola. Goian bego. / Pérez y López.
Marmolistas. Derio. / Bizkaiko Bibliotekan ere
egonen da / (deskomekatzen ez banaute),
/ liburu bat (behar-bada, ez da seguru), /
inork letuko ez duena, / nire izenarekin. Eta
/ gizon batek esanen du kardanberak loratzen
direnean, / Nire aitak esaten zuen bezala, nik
ere... / (Andre bat etorriko zait Done Santuru
oro lore-koroa batekin). Jainkoak ez dezala
nahi Bilbaoko karrika bati / nire izenik eman
dezaiotela. / (Ez dut nahi bizargile hordi batek
esan dezala: / Ni Arestin bizi naiz, anaiaren
/ koinata nagusiarekin. Ba dakizu. Maingua.)
/ Batzutan esan zaharrak erratzen dira./
Pensatzen dut nire izena / nire izana dela,
/ eta ez naizela ezer ezpada /nire izena.

Poema honetan aita- seme genealogia irudikatzen da berriro ere («Nire aitak esaten zuen bezala, nik ere...»), eta emakumeari, ordea, zaintzaren eta oroitzaren ardura egokitzen dio, gainera, nolabaiteko gurtze keinua irudikatuz

(«Andre bat etorriko zait Done Santuru oro lore-koroa batekin»). Aitortzaz ere hitz egiten du poemak, alegia, bere izena autoritate bilakatzeko aukeraz («Jainkoak ez dezala nahi Bilbaoko karrika bati / nire izenik eman diezaiotela»). Arestiren poetikan aitortza literario eta kultural horren itzala etengabekoa da. Hurrengo poeman ere, autoritatearen gaia aipatzen da:

EGIA BAT ESATEAGATIK

Egia bat esateagatik, / alabak / hil behar
bazaizkit, / andrea / bortxatu behar badidate,
/ etxea / lurrarekin / berdindu behar bazait; /
Egia bat esateagatik, / ebaki behar badidate /
nik eskribitzen / dudan / eskua, / nik kantatzen
/ dudan / mihina; / Egia bat esateagatik, / nire
izena / kenduko badute / euskal literaturaren
/ urrezko / orrietatik, / inoiz, / inola, / inun /
eznaiz / isilduko.

Kanon literariotik baztertua izateko aukera aipatzen du («nire izena / kenduko badute / euskal literaturaren / urrezko / orrietatik»). Horrek adierazten du autoritate literario gorpuzteko lehian ziharduela, edo aukera hori buruan zuela.

Bestalde, «Egia bat esateagatik» poeman emakumeak jabetzari loturik agertzen dira. Are gehiago, emakumeen gorpuztak bortxa-eremutzat irudikatzen dira («alabak hil behar bazaizkit», «andrea bortxatu behar badidate»...). Gerra-bortxaketen eta

gerra-hilketen imajinarioa dakar gogora poemak, izan ere, poetak eginiko adierazpen batzuen ordaina jasoko dute alabek eta emazteak. Gatazka-egoeretan, emakumearen gorputzek herriaren territoria pertsonifikatu ohi dute, eta gizon inbasoreek edo zapaltzaileek inbaditutako emakumeengan euren konkistaren pertsonifikazioa irudikatzen dute. Bortxaketa-ekintzaren bidez, emakume horiek irudikatzen duten herri-imajinarioa eta territoria mendean hartzen dute nolabait. Halaber, ikuskera patriarkalaren ondorioz, emakumeak komunitate etsaiaren jabetza direnez, etsaien emakumeak bere eginez eta bortxatuz, komunitate erasotuarengan desohorea sortzea dute helburu, emakume horiek irudikatzen duten herri imajinarioa mendean hartzea⁸. Poeta zigortzeko bidetzat irudikatzen da alaben hilketa, eta emaztearen bortxaketa.

Poeman, hortaz, subjektu maskulinoak borroka kolektiboa du lehentasun («egia esatea»): alegia, anaitasuna eta espazio publikoa dira lehentasun, eta ez familia edo etxeko esparrua.

Gabriel Arestiren poetikan, bestalde, beste ama-eredu bat ere garatzen da, herri-imajinario

⁸ Informazio gehiago izateko, jo artikulu honetara: Belén Martín Lucas (2010): «La Madre Patria: de las metáforas nacionalistas a la violación como crimen de guerra», in Belén Martín Lucas (arg.), *Violencias (in)visibles. Intervenciones feministas frente a la violencia patriarcal*. Icaria: Bartzelona, 47-66.

guztietan hedatu ez dena, baina, geure herri-imaginarioan gerora garrantzia hartu duena: ama erruduna / ama erredentorea. Ama errudun hori komunitatearen ekintzen arduradun bihurtzen da, eta erru kolektiboaren zama egokitzen zaio. Zentzu horretan, erredentzio kolektiboaren subjektu ere bilakatzen da: alegia, seme-alaben ekintzen arduradun / errudun egiten denez, ekintza horien erru-garbitzea ere hari dagokio. Ikuskera hori argi gorpuzten da «Josepa Mendizabal Zaldibian» poeman⁹:

JOSEPA MENDIZABAL ZALDIBIAN

Etarren ama urrikariek / bakea dute merezi /
bihotz-ikara izugarrian / dardaraz baitira bizi
/ Etarren amek / asko sufritzen dute. / Andre
hauen bihotzean / kabitzen da / munduko
min guztia. / Aitak / Lemoako frentean / hil
zizkieten. / Nebak / gartzelatik deserriara /
ibili zaizkie / barreiu. / Eta orain semeak /
kaminoetan / erortzen zaizkie / zerraldo...

Etarren amek / asko sufritzen dute, / semeak
hiltzen dizkietenean / eta batez ere / semeek
hiltzen dutenean... / Arrosa gorri-zuri /
idien apatsek zapaldua / bezalakoak dira:
/ Andre urrikari hauez / urriki zaitzte... /
Zeren Euskal Herria / Axularren sagarroia

⁹ Berriro ere, emakume baten historia aitortzen du poemak, eta bere esperientzia poesia-gai bihurtzen du; baina, halaber, poemako genero-rolak genero-bazterketa irudikatzen dute.

/ bezalakoa da. / Bere egitez ere / nekez
erditzen da / baina bere faltaz / nekezago,
/ penazago... /

Eta ETA / (lehen zen EDO) / sagarroiak
bere burua / erditzera / apoderatzen
duen harria / da. / Asko izan da karloez
/ eta / arantzeez... / Hainbeste otoitz...
/ hainbeste ezpata-dantza, / euskal-meza,
/ zortziko nagusi, / alboka, / txistu.../
Hainbeste hostia, alu eta potro... / Herri
honi / erditzeko tenorea / tokatu zaio... /
Mutilen barrabil ostikatuak / eta / neskon
diti zigarroz erreak / dilatazio-minak
izan dira / baina / andreon sufrimentu-
moralarekin / expulsio-mina / dator. /
Herri kobarde (hain balent) hau / bere
libertatez / erditzen da / Santa Gurutze
honetan... / Eguzkiaren ateko tortura-
lekutik! / Josepa Mendizabal Zaldibian /
asko penatzen da...

ETAkideen amak kolektibo gisa irudikatu
ditu poeman, eta «batez ere / semeek hiltzen
dutenean...» mintzen direla dio, nolabait
errudun sentimendu sakona iradokiz. Aitaren
itzalik ez dago poeman, eta amek hartzen
dute seme-alaben ekintzen ardura zein zama.
Ama horiekiko erruki sentimendua hanpatu ez
ezik, erredentzioa haiei dagokiela adierazten
da: «andreon sufrimentu-moralarekin /
expulsio-mina / dator». Alegia, ama horien

oinazeak «garbituko» ditu erru moralak, erru kolektiboak. Poemaren mundu ikuskeraren arabera, amek ez dute gogoaren zilbor-hestea eteterik¹⁰, antza.

«Hizkuntza klaroa»: bizkuntza-ideologia eta genero-eraikuntzak

Arestik argi ulertu zuen hizkuntza-ereduek ikuskera sozialak eraikitzen dituztela, eta hartara, Arestiren ekarpenetan (eta diskurtsoetan) bereizezinak dira gizarte-eredua, kultura-eredua eta hizkuntza-eredua. Bide horretatik, kultur hizkuntza eraikitzeko edo proposatzeko bidean ikuspegi herrikoia izan zuen gogoan, ikuspegi garbizaleak erabat arbuiauz, hainbat arrazoirengatik: euskalduntasun garbiaren irudiarekin bat ez zetorrelako, kultur hizkuntza herritarren gehiengoarentzat ulergarri behar zuelako izan, kultur hizkuntzak euskalduntzea ere gogoan izan behar zuelako. Euskara klaroa, popularra, kaletarra eta obreroa aldarrikatu ez ezik, halako hizkuntza ere bere egin zuen: «nire poesia merkea da, herriaren ahotik hartu nuen debalde».

¹⁰ JosAnton Artzek *Isturitzetik Tolosan barru* (1969) bilduman ama-seme artean zilbor-hestea eteteko deia egin zuen, «Gogo eta gorputzaren zilbor-hestea» poema ezagunean: «zuk zure nortasunaz, / ni nereaz. / Ama! / Eten dezagun / lehen gorputzarena bezela / orain, / gogoaren zilbor-hestea».

Arestiren poetikan, bestalde, elkarren ondoan agertzen dira askotan emakumeak eta hizkuntza, eta jabetzaren imajinarioari lotuta. Adibidez, «Orienteko miraila» poeman argi ikusi bezala: «Orain / Izen baten jabe, / Etxe baten jabe; / Esposa bat dudala, / Hizkuntza bat dudala; / Alaba batzuk ditudala, / Liburu batzuk ditudala (...)» (Aresti, 1986b: 207).

Bestalde, euskararen aldeko poema ezagun honetan, gizonak ekintzailatzat irudikatzen dira, eta emakumeak, aldiz, martiritzat:

EGUN DA SANTI MAMINA

(...) Itsas aldean lizarra / Hari begira lizarra
/ Euskera salbo ikusi arte / Eztut kenduko
bizarrak / Kantatu zuen oilarrak / Argitzen
dira belarrak / Agera gure martiriari / Moztu
zizkaten bularrak / Bularrak moztu zizkaten eta
/ Euskalerriak diotsa / Solomo luze dultzerik
gabe / Eman zaidazu bihotza.

Are gehiago, emakumeen gorputza mutilaturik agertzen da («moztu zizkaten bularrak»), edo, eskaintzarako prest («Eman zaidazu bihotza»). Gizona, aldiz, desobedientziaren subjektu dugu («Ez dut moztuko bizarrak»). Ez du emakumea euskaltzalgintzako eragiletzat (edo ekintzailatzat), gizonak euskalduntzeko ez bada (maistra edo irakasleez jardutean adierazi dugun moduan).

JosAnton Artzek, ordea, *Isturitzetik Tolosan barru* (1969) bilduman euskara garbia gaitzetsi ez ezik, emakume garbiaren irudia auzitan jarri zuen:

O o o o o! euskera dohatsua / O o o
o o! euskera garbia / ai! Biraorik ez duzun
hizkuntza. / hain zera txukun / hain fin eta
kutsu-gabea / goragalea ematen didazu / izan-
ta ez zeralako / ez izan-ta hala erala esaten
dutelako. / biraorik ez bazendu / zer txistea
izango zinaken / EUSKERA / puta ezpainetan
ere erabiltzera iritxiko ez balitz / zer antzu
izango zinaken euskaldun.

Hortaz, putak edo sexu-langileak euskalgintzaren subjektu politikotzat hartzen dira poeman. Arestiren imajinarioan, oster, emakume garbiaren irudia da nagusi: emakume on, zintzo eta leiala. Beraz, pentsamendu arestiarrek hizkuntza garbiaren kontra egiten du, baina, emakume garbiaren alde.

3. GIZONTZEKO (ANDRETZEKO) POETIKA POLITIKOA?

Hedoi Etxartek Arestiren posizio poetiko-politikoa honela adierazi du:

ez ote ditu (...) Arestik (...) bere garaikideak diren edo gerora Hego Euskal Herrian sortzen diren emantzipazioaren ekipo ezberdinen eremu problematikoak zedarritzen? Langileak, kristau erradikalak, ezkerreko komunistak, troskistak, ezkerreko abertzaleak, maoistak, autonomoak, sindikalistak, borroka armatuko militanteak, feministak, libertarioak. Askapen topikoa aldarrikatzen du Arestik (Etxarte, 2013: 83)¹¹.

Beraz, Arestiren poetika askapen borroka ororen ikurtzat du, «emantzipazioaren hainbeste ekipotakoa» (Etxarte, 2013: 84). Baita borroka feministaren ikurtzat ere. Arestiren poetikaren (eta pentsamenduaren) inguruko diskurtsoak eraikitzerakoan, halako orokortzeak egitea arriskutsua da, itzalera eramaten direlako poema arestiarretan irudikaturiko genero-irudikatzeak. Ikusezintasun horrek, gainera, lelo arestiarrek behin eta berriro erabiltzera garamatza, lelo horien mundu-ikuskerara gaurkotu gabe, eta lelo horietariko batzuetan gorpuzturiko genero-bazterketa birsortuz.

Gabriel Aresti poesia sozialaren patriarkatzat hartu dela adierazi dugu; eta irudi horretatik tiraka, poesia soziala (poesia politikoa) maskulinitatea

¹¹ Azpimarra gurea da.

eraikitze bide eraginkorra izan da literaturaren esparruan, Oier Guillanek *Arra. Arraroa* (2010) antzezlanean adierazi bezala: «Arraroa nintzen besteentzat, poesia idazten nuelako. / Eta hara non bat-batean, poesia politikoa idatzi nuen. / Halako batean gizon bilakatu nintzen batzuentzat». Arestiren inguruko diskurtsoek sarritan maskulinitate literario-poetiko hori egonkortu besterik ez dute egiten, poesia soziala edo politikoa gizentasuna eraikitze bide literario bihurtuz. Zentzu horretan, genero-bazterketari aurre egiteko, beharrezkoa ere bada poesia sozialaren definizioak eta moldeak birpentsatzea, maskulinitatearen moldeak (aitatasunak eta epikotasunak) izan ez daitezen politikoaz jarduteko bide poetiko zilegienak.

Areago, Arestiren zenbait balore goraiatzean –«unibertsaltasuna (gizatasunaren balioak)» eta «justiziaganako maitasuna» (Gabriel Aresti kultura elkarte, 2013: 9-10)–, genero-ikuspegia ere kontuan hartzea komeni da, eta justizia sozialaren ikuspegitik herren non ibili zen gogora ekartzea. Ez ditzagun bere leloak bere horretan geure egin, gaurkotzerik gabe, pitzadurarik gabe.

BIBLIOGRAFIA:


- Aldekoa, Iñaki (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- Aresti, Gabriel (1986a). *Harri eta Herri*. Zarautz: Susa.
- Aresti, Gabriel (1986b). *Euskal Harria*. Zarautz: Susa.
- Aresti, Gabriel (1986c). *Harrizko Herri Hau*. Zarautz: Susa.
- Aresti, Gabriel (2000 [1964]). *Harri eta Herri*, Zarautz: Susa.
- Artze, JosAnton (2007 [1969]). *Isturitzetik Tolosan barru*. Iruñea: Pamiela.
- Askoren artean (2013). *Gabrielen lekua*, Bilbo: Erroa.
- Azurmendi, Joxe (1985). «Aresti: Sentsibilitate konkretu bat», *Jakin* 36, 5-30.
- Etxarte, Hedoi (2013). «Alderdirik gabeko poeta komunista», in Askoren artean, *Gabrielen lekua*, Erroa: Bilbo, 73-91.
- Epelde, Edurne; ARANGUREN, Miren eta RETOLAZA, Iratxe (2015). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat*, Emagin / Bilgune Feminista.
- Duch, Montserrat (2012). «Tot pensant històricament el sexe de les nacions», in Palau, M. y Toda, A. (ed.). *In/dependents: dones i projectes nacionals*, Valencia : Tres i Quatre, 33-50.
- Elustondo, Miel Anjel (2014). «Oso bakarka egin dut nire bidea, outsider bat izan naiz», *Berria*, 2014/08/17.
- Gabriel Aresti kultur elkarte (2013). «Atariko gisa», in Askoren artean, *Gabrielen lekua*, Erroa: Bilbo, 6-15.
- Guillan, Oier (2010). *Herio heroi / Arra. Arraroa*, Artezblai.
- Martín Lucas, Belén (2010). «La madre patria: de las metáforas nacionalistas a la violación como crimen de guerra», in B. Martín Lucas (ed.): *Violencias (in)visibles. Intervenciones feministas frente a la violencia patriarcal*, Barcelona: Icaria, 2010.
- Sarasua, Jon (2004). «Euskararen arazoa existentziala da», in *www.erabili.com*, http://www.erabili.com/zer_berri/galdezka/1082164520 [azken kontsulta: 2015/06/19].



Erramun Mendibelanda: *Udaberria hilabeterik krudelena* (1999). Grafitoa.

Aurreko eskena gertatzen den leku berean (eskaratzean), Amumak Mundua zertan den irakasten dio bere ilobari. Inguruan, uholde baten jario bortitzean, gizonezkoen siluetak etzanda doaz (alienatuta) eta Unibertsoa dena guztiz okupatzen dute. Kanpoaldea mugarik eta erreferentziarik gabeko espazioa da, bertan maskulinoa eta aspergarria den errealitate bat nagusitzen dela. Ikusten ditugun lehiak kobazuloan zabaldutako begiralekuak dira. Hantxe, gure umeak bizitzak duen zentzu Magikoa ezagutzen du lehenengoz. Amumak diotso: *etxeko eskaratzetik irteten zarenean, umea, tentelduko zaituen bizitza izango duzu.*

E. M.



ZALDIARRI·6